**2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

**Saila:** 20 OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Programa:** 28 ZERGAREN AURKAKO BORROKA

**LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008**

**Departamento:** 20 HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**Programa:** 28 LUCHA CONTRA EL FRAUDE

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

Borroka hori ahalik eta adostasun handienarekin egin nahi izan da, hiru arlotan (herritarrak, organizazioak eta pertsonak) azaldu behar den erronka horizontal baten moduan.

Zerga iruzurra egotea gizarte garatu guztientzat elementu kaltegarria da, aurrekontuen eskuragarritasuna gutxitzeaz gain, herritarren artean gauza publikoen berdintasunezko funtzionamenduari buruzko mesfidantza sortzen duelako.

Zerga iruzurraren aurkako borrokan aurrerapausoak egingo badira, Zerga Administrazioak gertatzen ari diren aldaketak kudeatzen jakin beharko du. Aldaketa horiek honela laburtu ahal dira:

- Kudeatu beharreko informazio gehiago.
- Zerga figura gehiago.
- Zerbitzu eskaintza handiagoa, zerga betebeharrak borondatez betetzea errazteko.
- Zerga Administrazioen arteko koordinazioaren beharrizana.
- Zerga iruzurra egiteko modu berriak agertzea.

Beraz, ekitaldi honetan oinarrizko eta lehentasunezko helburua zerga iruzurraren aurkako borroka izan da, zerga egitateen ikerketaren bidez; arrazionaltasun eta eragingarritasun irizpideekin jardun da, zerga arloko irregulartasunen zantzuak dauzkaten talde, norbanako eta sareak identifikatuz, bidezkoa izan denean ikuskatze akta egokiak eta, kasuan kasu, zehatutako espedienteak eginez, edo, Ogasun Publikoaren aurkako delitu bat egin delako zantzuak egon badira, txosten egokiak eginez.

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

Esta lucha se ha pretendido llevar a cabo con el mayor consenso posible, como reto horizontal que debe reflejarse en los tres ámbitos: ciudadanos, organización y personas.

La existencia del fraude fiscal constituye un elemento nocivo para cualquier sociedad desarrollada, en la medida en que, además de minorar las disponibilidades presupuestarias, genera entre los Ciudadanos una desconfianza sobre el funcionamiento equitativo de lo público.

Los progresos en la lucha contra el fraude fiscal vendrán dados en función de la manera en que la Administración Tributaria, sepa gestionar los cambios que se están produciendo y que pueden resumirse en:

- Un aumento del volumen de información a gestionar.
- Un aumento de las figuras tributarias.
- El aumento de la oferta de servicios para facilitar el cumplimiento voluntario de las obligaciones fiscales.
- La necesidad de coordinación entre las diferentes Administraciones Tributarias.
- La aparición de nuevas formas de fraude fiscal.

Por lo que durante este ejercicio, ha sido objetivo básico y prioritario la lucha contra el fraude fiscal, mediante la investigación de los hechos imponibles, actuando con criterios de racionalidad y eficacia, identificando colectivos, individuos y tramas, que presentan indicios de irregularidades tributarias, extendiendo cuando ha procedido, las correspondientes actas de inspección, y en su caso, los expedientes sancionadores ó bien, si se han apreciado indicios de la comisión de un posible delito contra la Hacienda Pública, la emisión de los correspondientes informes.

Halaber, Ikuskaritzak honako hauen balioaren egiaztapenak bultzatu ditu: eskubide, errenta, produktu, ondasun, ondare, enpresa eta gainerako elementuenak, bai eta zerga itzulketak lortzeko edo zerga araubide bereziak aplikatzeko eskatzen diren betekizunak bete direlako egiaztapena ere.

Erantzukizuna desbideratzeko jardunak gauzatu dira hori egitea beharrezkoa izan den kasuetan, eta enpresen azpijokoak ezagutzeko eta Konkurtso Lege berrira egokitzeko lan egin da.

Ekitaldi honetan ahalegin berezia egin da horrelako jokabideak zuzendu eta zehatzeko, baina zerga betebeharrak borondatez betetzea bideratuko duten prebentzio neurriak ezartzeko ere bai, eta horretan, agian, indar handiagoaz.

Era berean, ekitaldi honetan honakoa egin da:

Urteko Ikuskatze Planak bultzatu ditu. Plan horietan bildu da Zuzendaritzako zerbitzuek iruzurraren aurkako borrokan egiten duten jarduera osoa, eta hauek hartu ditu kontuan:

- Kalitatearen bultzada eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera.
- Zergadunarentzako informazioaren eta laguntzaren hobekuntza.
- Foru Araudiaren garapenean parte hartzea.
- Langileen prestakuntzaren garapena eta, bereziki, auditoretza informatikoetako prestakuntza.
- Zuzendaritzak zerga iruzurraren aurkako borrokan egiten dituen lehentasunezko jardueretan lan egin du.

Kudeaketan kalitatea eta bikaintasuna indartu dira, Foru Administrazioak emandako zerbitzuak beste Administrazio batentzat erreferentziazko zerbitzuak izateko.

Zerga administrazioak daukan informazio osoa erraz eskuratzeko lan egin da.

Asimismo desde Inspección se ha impulsado la comprobación del valor de: los derechos, rentas, productos, bienes, patrimonios, empresas y demás elementos, así como la comprobación del cumplimiento de los requisitos exigidos para las devoluciones tributarias, ó para la aplicación de regímenes tributarios especiales.

Se han llevado a cabo las actuaciones de derivación de responsabilidad, en aquellos casos que ha procedido llevar a cabo la misma, y se ha trabajado para descubrir las tramas empresariales, y para la adaptación a la nueva Ley Concursal.

Durante este ejercicio, se ha hecho un esfuerzo especial, no sólo en la corrección y sanción de dichas conductas, sino también, y quizás con más fuerza todavía, en el establecimiento de medidas preventivas que favorezcan el cumplimiento voluntario de las obligaciones fiscales.

Asimismo durante este ejercicio se:

Ha dado un impulso a los Planes de Inspección Anuales, que recogen toda la actividad de los Servicios de la Dirección en la lucha contra el fraude y han tenido en cuenta:

- El impulso de la calidad y el uso de las nuevas tecnologías de la información y comunicación.
- La mejora en la información y asistencia al Contribuyente.
- Participación en el desarrollo de la normativa Foral.
- Desarrollo de la formación del Personal, y especialmente la formación en las Auditorias Informáticas.
- Ha trabajado en las actividades prioritarias de la Dirección en la lucha contra el Fraude Fiscal.

Se ha potenciado la calidad y la excelencia en la gestión, de manera que los servicios prestados por la Administración Foral, constituyan servicios de referencia para otras Administraciones.

Se ha trabajado para conseguir un acceso fácil a toda la información de que dispone la Administración

tributaria.

Zenbait subjekturen iruzur arriskuak kudeatzeko lan egin da.

Se ha trabajado para gestionar los riesgos de fraude, de determinados sujetos.

Ikuskapenerako informazio sistemaren azterketa orokorra egin da.

Se ha realizado un análisis global del sistema de información para la Inspección.

Ikuskatze Zerbitzua bitartekoz hornitzeko lan egin da.

Se ha trabajado en dotar de medios al Servicio de Inspección.

- Bitarteko teknologikoak:
  - Zerga aldetik garrantzitsuak diren datuak hartu eta egiaztatzeko sistemen nahiz eskuragarri dagoen informazioa kargatu eta kontsultatzeko sistemen hobekuntzaren bidez.
  - Informazioa beste administrazio batzuekin trukatzeko sistemen areagotze eta hobekuntzaren bidez.
  - Informazio sistemen hobekuntzaren bidez, zerga iruzurraren aurkako borrokako jardun guztiak eragingarriago bihurtzeko.
  - Kanpoko informazioa txertatzeko sistemak homogeneizatzea helburu duten proiektuei ekin zaie, sistema horiek erabilgarriak baitira kudeaketa prozesuetan nahiz zergadunak aukeratzeko prozesuetan, kontrol plan egokietan sartzeko.

- De medios tecnológicos:
  - Mediante la mejora en los sistemas de captura y verificación de datos con relevancia fiscal, así como en los sistemas de carga y consulta de la información disponible.
  - Mediante la intensificación y mejora de los sistemas de intercambio de información con otras Administraciones.
  - Mediante la mejora de los sistemas de información, con la finalidad de hacer más efectivas las actuaciones de la lucha contra el fraude fiscal.
  - Se han abordado proyectos dirigidos a lograr una homogeneización de los sistemas de incorporación de información externa, de utilidad tanto en los diferentes procesos de gestión, como en los procesos de selección de contribuyentes, a los efectos de su integración en los planes de control correspondientes.

- Giza baliabideak:
  - Egun indarrean dagoen Enplegu Publikoaren Eskaintza amaitu ondoren, Zuzendaritza Zerbitzuetan hutsik dauden plazak beteko dira, Enplegu Publikoaren Eskaintza hasteko unean bertan.
  - Tresna berrien erabileren ikuskapenean prestatzeko programa berria landu da.

- Medios Humanos:
  - Una vez finalizada la Oferta de Empleo Público que se está llevando a cabo en la actualidad, se cubrirán las plazas vacantes de los Servicios de la Dirección en el momento de iniciarse dicha Oferta Pública de Empleo.
  - Se ha llevado a cabo un Nuevo programa de formación en Inspección en el uso de las nuevas herramientas .

Kudeaketa Zerbitzuak iruzurraren aurkako borrokan gehiago inplikatzeko lan egin da.

Se ha trabajado en una mayor implicación de los Servicios de Gestión en la Lucha contra el fraude.

## II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

– Zergadunen zerga betebeharren betetze mailari

## II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

– Realización de informe sobre grado de

buruzko txostena egitea, kolektibo guztietan laginketa eginda. Ekitaldi amaierako betetze maila: % 70.

- Ikuskatutako zergadun kopurua: 1.636
- Euskarri informatikoarekin egindako ikuskapenen kopurua: 61
- Ikuskatutako ezkutuko ekonomiaren sektore berrien kopurua: 52.
- Ikuskapen jardunen gaineko emaitzaren zenbatekoa: 50.248.789 €.
- Egun Arabako Foru Aldundian indarrean dagoen Enplegu Publikoaren Eskaintza amaitu ondoren, Ogasun Zuzendaritza Zerbitzuetan hutsik dauden plazak beteko dira, Enplegu Publikoaren Eskaintza hasteko unean bertan.



cumplimiento de las Obligaciones fiscales de los Contribuyentes sobre un muestreo de los distintos colectivos, con un grado de cumplimiento a final de ejercicio del 70%.

- Número de Contribuyentes inspeccionados: 1.636
- Número de inspecciones realizadas con soporte informático: 61
- Número de nuevos sectores de la economía oculta objeto de inspección: 52.
- Importe Resultado actuación inspectora: 50.248.789 €.
- Una vez concluya la Oferta Pública de Empleo que se está llevando a cabo en la actualidad en la Diputación Foral de Alava, se cubrirán las vacantes de puestos existentes en los Servicios de la Dirección de Hacienda, a fecha de inicio de dicha Oferta Pública de Empleo.